

## GAZTEEN PLAZARATZEA

---

Hainbat ekimen egiten ditugu gazteen plazaratzeari lotuta:

### *Bizkaiko Eskolarteko Txapelketak*

- **Bat-bateko sariketa:**

18 urte arteko gazteei zuzendutako eta urteroko maiztasuna duen sariketa da eskolartekoa. Gazteei, plazarako jauzia ematen laguntzeko diseinatutako formatua du, pausu hori ahalik eta erosoan eman dezaten.

Sariketak sailkapen izaera du eta Bizkaiko eskolarteko txapelduna izendatzeaz gain, buruz burukoa jokatzeko duten bertsolari gazte biek Euskal Herriko eskolarteko txapelketarako pasea lortzen dute.



- **Idatzizko sariketa:**

Eskolartekoak, bat-bateko sariketaz gain, bertso idatzien sariketa ere badu. Hau ere urtero egiten da. Orokorrean, aurre kanporaketak ikastetxeetan egiten dira, eta ondoren, eskualde bakoitzeko 30 bat gaztetxok hartzen dute parte finalean. Sariketa 5 kategoriatan banatzen da: LH5, LH6, DBH 1, DBH 2 eta DBH 3-4-batxilergoa. Finala bat-batekoarekin batera izaten da.

Eskolarteko sariketa Ikastolen Elkartearekin batera antolatzen da.

Informazio historikoa [hemen](#).

## *Bertsolari gazteen BBK Sariketa*

Bertsolari gazteei zuzendutako taldekako sariketa da. Historia luzeko sariketa da, lehenengo edizioa 1993an izan zen, eta urtero egiten da.

Bertsolari gazteei jendearen aurrean kantatzeko aukera ematen dien sariketa da hau. 8 taldek hartzen dute parte eta talde bakoitzean 6 bertsolari egoten dira, erdiak 18 urte artekoak, eta beste erdiak 24 urtera artekoak. Taldeak eskualdeka osatzen dira, eta sariketak sailkapen izaera du.

Sariketa BBK, Bizkaiko Ikastolen Elkartea eta Bizkaiko Bertsozale Elkartearen artean antolatzen da.

Orain arteko edizio denen informazioa, [lotura honetan](#).

## *Eskolatik plazara proiektua*

18 urte bitarteko bertsolariei zuzendutako ekimena da hau, gazteei lehia kontestutik kanpo bertsotan egiteko aukera eskaintzen diona.

Ekimen honetan, bertso eskoletan dabilzan gazteak ikastetxeetara joaten dira, umeen aurrean bat-batean kantatzera. Ekintza honekin, batetik, bat-bateko bertsolaritza eskola umeengana hurreratzea lotzen dugu, horrela euskararen presentzia herriz herri zabalduz, eta bestetik, bertso eskoletan dabilzan gazteen plazaratzean eragiten dugu, espazio seguruak eskainiz.

Jarduera honen helburua norabide biko da, beraz. Batetik, kantuan ari diren gazteengan eragiten da lehenengo plazak eskainiz eta, bestetik, hartzaile diren umeengan ere eragiten da, aisialdia euskaraz bizi duten gaztetxoek sorkuntza lana erakutsiz eta motibatuz. Hau da, umeentzako eredu hurbilak dira gazte hauek, beraien aisialdian bertso eskoletan hizkuntzarekin jolasean dabilzan gazteak dira.



## *Plazara!*

Proiektu berria da, *Plazara!*: 2021ean izan zuen lehenengo edizioa eta harrera ikusita, aurten bigarren edizioa izan du.

*Plazara!* 18 eta 24 urteko gazteei zuzendutako bertso zirkuitua da, lehia barikoa. Helburu nagusiak, Bizkaiko gazteen plazaratzean eragitea eta gazteen saretzea sustatzea ditu.



Bertsolari gazteak ditu protagonista proiektu honek, ez bakarrik beraien arteko saretzea duelako helburu, saioen antolatzaile ere gazteak eurak bihurtzen dituelako baizik.

### **INFORMAZIO GEHIAGO**

Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Zabale kalea 9, atzea

48200 Durango

Tel: 946812711

E-posta: [bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus](mailto:bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus)